

MUÑAGORIN KANTAK

Le País Basque deitzan dan *Francisque Michel* jaunaren gutun edo liburuan, 256 orĩaldian, *Muñagorrien cantac* idoro ditut. Erderaz: *Chansons de Muñagorri.— Dialecte du Guipuzcoa.*

Pozik jardun det, erderaz dakařen erautsia irakurtzen. Txapelgoĩiak aipatzen ditu: Muñagorri zein eta zer zan adierazten digu, J. Duvoisin-en bidez; eta Eloorio zan bat, *pesetero* edo txapelgoĩburuzagia, Muñagoriren erailetzat dauka. Au ere J. Duvoisin-en aburuz.

Nik, badakit beste aldez, Eloorio au betelutak zala: Juan Antonio Muñagoĩ berastegiara; ta txapelgoĩiak, *peseta-zariz*, jo ta autzi ibili oi zirala mendiz-mendi, auxe edozeñek daki.

Goazen ordea Muñagoĩn kantetara.

Ez naiz bertso-zale gogok, bañan lenbiziko gudaldikoak diralako, oyentxen su-geldoan txardanga sartu nai nuke. Ezin esan nezake, bertso eder-ederak diranik, orduko labeak opil bikañik ezin efe zezakean-da. Obidio Nasoren esanera, pitin bat biur ta makurtu nai nuke: *quotque aderant vates, rebar adesse deos*, bañan Muñagoĩn *vates-ek*, luřeko astařen aundia baidu, ta goi-aldeko ekañu garde-netik *batez*.

«Muñagorric diona
Bere proclaman
Guerrac ondatzen gaitu
Bostgarren urtian;»

Muñagoĩ, gizon berastegiara, idazkari edo eskribaua zan: Abiraretakin zerbait ikusteko izan ote zuen, badasate batzuek; ařen gogo ta zimako gizona zala, egi-antzean dabil; eta gudaldian zara-oroaka, ibilitaldi lakatzak egin zituela, iñork ezin uka.

Euskaldun asko karlisten ostetan zebiltzan: Muñagoĩrik ezin eramán noski, ta euskaldun oyek karlisten alderditik ayena nai zituen, *fueroak* aitzaki-maitzaki arturik:

«Karlos aguertuez kero
 Provinci auyetan
 Beti vici guerade
 Neke ta penetan:
 Naiz kendu guc duguna
 Beñere ecer eman;
 Bost negar eguiteco
 Nunbait jayo guiñan.»

Etzan motel eta kaskalu ibili, bere bizkar artu zuen arazo zai? ontan. Ez dagokit, zeatz-erpiñetan auxe azaltzea; bañan mineñaren muturëan daukat esan-esangari: Juan Olabëria jaunak lenbiziko sua Muñagorin labeari eman ote ziyon.

Gero Eusebio Bardajik jaurti ziyon enboïa, ta berastegiararen naste-bofaste artan, lepoa luze-luze egiñik, urduri-urduri bazebil-tzan: Bizente G. Arnao. Ofalia-kondea, Alamedako Markesa, Bila-fuerteko kondia, Pedro Paskual Uhagon ta Jose Mari Bidarte. Alajañetan! Ba ornen zituzten sakelean iya hi miloi peseta!

Ontan Muñagorï, axeriya bezin pizkor ta maltzur, bat-batez bezela, Berastegin bertan jaiki zan:

«Bost urthe badijuaz
 ta nekian bethi
 ia, bear ditugu
 beguiak idiki.
 Carlistac Ebros gora
 motel ta guchi
 al ajen esperantzetan
 ez gaitecen bizi.»

Etzan, asti luzean gudaldian ibili. 1838^oko Jorailaren 13ⁿ, atera zan mendira 300, mutilekin. Bazirudin kemen aundiko besoak zabaltzen zituela, bañan aguro astindu zizkiyon erpo ta zankoak Jose Inazio Iturbe karlisten gudari-nagusiyak. Estu zebilen Antonio Muñagorï, lepo-beteko uretan: zuzpeltu, altxa, ta txori egalariak bezin aguro, Prantziya atzeman zuen.

Etzebilen alper beste alderdiko neurtizlaria. Euskalërian bada ontarako sua. Ez dira noski on-xamarak izango emengo bertso-lariak, beste lur-egaletan izan oi diranak beste; bañan pitina edo kinkiña, bakoitzak badu bere eresi-sorgiña. Muñagoriri iri ta iseka egin bear zala-ta, askoren abotara eldu ziran eë-eë bertso abek:

«Muñagofiren salida
 ayerazteko segira
 garayak etoñi dira.
 Naikoa zuen trabaraztea
 dirubarekin partida...
 Jaun orén tropak non dira?
 denak igesi joan dita,
 bera Prantziyan jañi da.»

Bertso abek lirain-xamañak datozkigu. Muñagoín aldekoak, ez dira orén biziki ta tajuz egiñak, nonbait bertsolari larazkagoa zuen berastegiñak Iturbek baño.

Batetik eta bestetik olerki-sua datorkigula, badakigu. Ez naiz beste sutan nasten. Artarako kemen geyenak loan eta urtu zaizkigu, bañan beti gazte diraun gogoak eragiten dizkigun erautsiyetan, abetan bai, ataza biziz diardugu.

Muñagoína:

«Adizkide maiteak
 ona claro gauza
 bacarrican fueroak
 dira gure causa
 ayec defenditzeko
 derechua dauca
 Provintziko semiak,
 ori ecin uca.»

Etzuten aratziñe edo musak asko-asko urgazi gure bertsolari auxe. Leño oyek gardenago erakartzeko, etzan indar aundirik egin bear; bañan nafazki-aroak ziran orduantxe, ta gudaldian dena zilipurdika ibili oi da. *Claro-en* ordez, urgi jañi besterik etzuen. *Derechua* ordez, *eskubide* edo *eskual*. *Causa fueroak defentsa* belafi guzietan buñun-buñun zebiltzan, ta ezin zitekean orduan bestelaz esan.

Ondo poliki ta ardurazki dator beste bertso auxe, ta orégatik dasakegu, Muñagoín bertsolariak, bazekiela, nai zuenean, opil goxuak egiten.

«Juntac eta apaizac
 altar artuez kero
 noren beldur gare gu
 ez orain ta ez guero.

Guerrac idiki ditu
 guztion beguiac
 unitzeko... ez bagaude
 burutik jausiak.»

Irakurleak zer deritza?... zuzen-xamar, bańan. azken-aldeko *unitzeko* ofek, bařen guziyak ozkirí biurí dizkit. *Ez bagaude burutik jausiak* idatzi edo esan zuenak, eda zezakean apain-erátza beste itzetarontz. Ez dira, bertso-lanetan, gogo aratz eta erautsi-txuřioa eran betean, beti ta beti, atzematzen; bańan bertso bat tajuz egin ezkerok, bere baste anai eta senideak, aita baten semeak begoz. Gure bertsolarietan napařeri edo baztanga maiz azaldu oi da. Seme batzuek eriantz, eta beste batzuek, baztanga-nařuz. Jo ta autzi: antziak eta baziak. Au bezela.

«Muńagoři zu zera zu
 zori onecua
 bandera altchatu deęu
 gure bakecua.
 Potenci onguilleac
 manic besua
 laister eguingo degu
 bake dichosua.»

Muńagoři Iturbek Prantziyan sar-arazi zuen, ta etzuen beraste-giařak toki malkařik aukeratu, ta eři eder ta zoragaři ontan zalarik, aukeko bertsoak adierazten digutenez, *potenci* ongileak beso-urgaztea luzatzen ziyoten, ta batez ere gure Pasayan erdi edo oso nagusi zebilen itxas-gizon ingelendar John Hay-ek.

Zugatz batean kukuak sońua jo-ta, beste batean beste kukuak erantzuten zuen. Bata biri-bořoka, abo nastuz kantari: bestea etzan ixilik egoteko jayua, ta lirańago ta urfexindořaren noizean beingo bustinkaraz iardesten zuen. Jakińa, beste neuriz edo dońuz:

«Muńagoriren jendiak
 ez dira ontan trebiak (gudan)
 biřatu leizke obiak.
 Beńere ez du gauz onik egin
 gizon bururik gabiak
 diru bila ateriak...
 aitu biazkik beriak!»

Bigarén sail ontan dakarzkidan bertsoak, Muñagofirenak dirudite; ez nuke ordea bururik aldeka-maldeka ipiñiko.

Baron de Montevilak (G. B.) oraintxe argitaratu duen liburuño batean, Muñagofirenak dirala diyo. Beintzat, onen aldeko burubidetakako sortuak.

Urniyetako gizoc zar batzuek goguan dauzkate orañarteño. Bati abeztu nizkion bertso aben sail-mutuñak: mutuña ezik, tximak eta adatsak eman zizkidan.

«Óra non dan Urnieta,
ez da besterik... paret!
ondorengoak éreta.
Beltz oyen botoz nekazariyak
egin biarko du dieta,
erdaldunaren kopeta
moñala, ondo bete-ta
gero igesi laxterka.»

Bertsoak ederki xamar egiñak daude. Ez da geyen-geyen ibili oi zan zazpi-zeiko neuñiya: zortzi oñeko matazak dira, laugaréna luze egiñik, ta auxe ezik, bertso guziyak alkarkideak maniatzen ditu. Arazo zail ta ezinkortxua bertsolariyentzat; bañan bein burutu ezkeru, neurtitza bizi ta adoretzu irten oi da.

«Óra non dan Urnieta
ez da besterik... paret!»

Noiz gertatu ote zan auxe? Orilaren 14-an, 1837 gafen urtean. Elizako liburu zarák adierazten dute. Lenbiziko gudan, eregiñaren gudazaleak etzuten Urnitan ezertxore tente ta zutik utzi. Ére ta ére! Ére eliz naguziya, ére Juan Donearen elizatxoa; jo ta autzi Azkortekoa. Gañera, 174 etxe kiskali-ta, alkaren gainka gelditu ziran Urnitar erúkiariak...

Altzutenez iritxi zituzten, beren etzategitzat, Arano, Goizueta, Amasa ta Tolosa. Ezin zitekean Ernani aitatu ere. Inguru guziak beltzaren mende.

«Beltz oyen botoz nekazariyak
egin biarko du dieta»...

Entzan Urnietarik izan 1837-1839 urtean bitartean.

Ez da liburuetan idazki-maratz bat ere. Onelaxe diyo Urnietako eretore zan Klaudio Larburu jaunak, ildakoen 2^m liburuan eta 34 gañen ofialdian.

Bigaréna.

«Óra oraingo euskara
nekazalerik ezpada,
ezertarako ezkara.
Arazoi txára maiz emateko
edozein beríz prest gara.
kolpia edo bulkara,
beldur ez pada ikara,
bete dezagun ijara!...»

Bigarén bertsoaldi au ezin soma genezake. Zer esan naiduen, ez dakigu. Badirudi ordea, nekazariyak gudaldetik etxeratu ta ayena nai dituela, euskera beríz ere gure artean bizi dedin, ta euskal-oiturretan, gentzabidez, iraun.

Ifugarena:

«Ay ango mayorazkuak
non ote dira gaxoak,
ez orélate oituak...
Bordariyentzat txardin-erdiya
erak, oiazko gozua
epeárak eta usoak
erari generosuak
ongi bete-ta basuak.»

Emen igaxtzen da, érez-asko, Muñagorítarén leloa: nekazariyak aldentzeko, mayorazkuen bizi-main lasai ta atsegiña begi-aúrean jari. *Bordariyentzat txardin-erdiya*, bañan gudostetan nagusi zebil-tzanak onoi jan eta edan, *epeárak eta moak... ongi bete-ta basuak*.

Ez da oraindik bertsoaldi onen argiya itzali: gazte giñala entzun oi genuen ainbeste bider. Andoain, Urniyeta ta Ernani inguruko sagardotegi-txuluak esango luteke.

Laugaréna:

«Prantzez Ingelesa beíz
zezenak ikusten dabiltz
bafera gañetik ifiz:
garotxa tira, eskua gorde.
egin digute bost aldiz!
au konsiderauko balitz
baliyoko luke anitz
buru gogorik ez palitz.»

Naiko kiskur atera liteke, bertsoaldi zaratatsu ontatik. Gizon arótzak begoz arózki: ez bitez besteren upelian sar, oso ezez galdu liteke-ta ardo onaren zainata.

Beltzak eta zuriak, arótzen abo-txulora begira zeuben, bañan arótzen arpegiya ñlargo-betea bezela azaldu zan, urak nastuen zebiltzan garaiz.

Muñagoíi berak, Pasayan zan itxas-gizon ingelets árekin ixil-kontu asko izan zituen, bañan etzuen berastegiafak babañun aundirik arentxen alorétatik jaso.

Bestelaz, laugáren bertzo onen aztárenez, ez dirudi bertsoen egileak gipuzkoára. Ez da anitz gure euskalkiz ibiltzen.

Bertsolariya idorotzeko, etzuen eragozpenik Muñagoíik izan. Gauz zañagoak bazituen.

Ta *spe potiundae provinciae adempta*. Eloríok txiki-txiki egin zuen.

INTZAGARAI